

## 2018ko ABENDUAREN 1eko MANIFESTUA

### "GIB: EZAGUTZEN BADUZU... IKUSPEGIA ALDATZEN ZAIZU"

Beste urte batez, hemen gaude abenduaren lehena ospatzeko. Egun garrantzitsua da, GIBari eta hiesari eman beharreko erantzunak gizarte osoarena izan behar duela sinesten dugun guztiontzat; hori dela-eta, hasteko, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen konpromisoarengatik eta ekitaldi honetara etortzeagatik.

Goiburutzat hauxe hartu dugu: "GIB: ezagutzen baduzu... ikuspegia aldatzen zaizu". Aurtengoan nabarmendu nahi dugu zeinen beharrezkoa den jendeari ikusaraztea egoera serologikoa ezagutzearen garrantzia. Guztiok pairatzen dugu GIBaren eragina, eta gure ardua da GIBarekin bizi diren pertsonenganako diskriminazioa akabatzea eta, horrela, gure ikuspegia aldatzea.

Diagnostiko goiztiarra ezinbestekoa da GIBarekin bizi diren pertsonen tratamendua eskuratzeko modua ziurtatzeko eta bizi-kalitate hobea izateko. Halaber, oinarritzakoa da ONUSIDAren helburuak erdiestea; hots, GIBarekin bizi diren pertsonen %90ek ezagut dezaten beren egoera serologikoa, GIBdun gisa diagnostikaturiko pertsonen %90ek har dezaten tratamendu antirretobiral jarraitua, eta tratamendua hartzen duten pertsonen %90ek birus-karga detektaezina izan dezaten. Pertsonak ahalduntzea ere bai, GIBaren prebentzioarako bitartekoak eta gaitasunak izan ditzaten, halako moduz non bai beren burua bai beren bikotekide sexualak zaindu ahalko baitituzte.

Zoritxarrez, oztopoek oraindik ere badiraute: estigmak eta diskriminazioak eragotzi egiten dute pertsonen probak egitea. Pertsona askok segitzen dute gaixotu eta/edo sintomak pairatu ondoren egiten probak, ez lehenago. Horregatik nahi dugu azpimarra jarri diagnostiko goiztiarraren garrantzian; izan ere, are gaur egun, 2017ko diagnostiko berrien %21 berantiarak izan ziren.

Bai sare publikoa eta bai entitateok egiten ari garen probak lagungarri izaten ari dira pertsonen beren egoera serologikoa ezagut dezaten.

Era berean, Nafarroako Gobernuak Gozamenez-ekin eta hori osatzen dugun entitateekin aurrera eramandako CON kanpaina, zeinak prebentzioan jartzen baitu azpimarra, eta sexu-transmisiozko infekzioen gorakadaren berri ematen, lagungarria izan da gizon eta emakume gehiago hurbil daitezzen gure entitateetara GIBaren proba egitera, prebentzioari buruzko informazioa eskatzera eta prebentzio-materiala jasotzera.

2017an, Osasun Publikoaren Institutuaren Aldizkariaren arabera, Nafarroan 41 GIB-diagnostiko berri izan ziren. Azken bost urteotan (2013-2017), 217 diagnostiko berri egin dira. Horietatik % 89 zegozkien 15 eta 54 urte bitarteko pertsonen. % 41ek 35 urte

baino gutxiago zituzten, eta horietatik % 48 emakumezkoak ziren. Datu horiek izugarriak iruditzen zaizkigu, kontuan hartuta prebeni daitekeen infekzio bat dela.

Osasun Publikoaren Institutuaren konklusioen arabera, GIBarengatiko infekzioen diagnostiko berriek ugaritzen jarraitzen dute –aurten, 2016an baino zazpi kasu gehiago izan dira–, eta diagnostiko berrien intzidentziak handia izaten jarraitzen du, nagusiki sexu-transmisioa dela-eta.

Horrek argi erakusten du beharrezkoa dela erakunde publikoek ahaleginak egin ditzatela GIBaren prebentzioan, eta populazio osoaren errealitate eta beharrizan berrietara egokitu daitezela. Horretarako ardatz nagusi gisa, GIB-HIESa kontrolatzeko programa berrabiarazi beharra dago.

GIBari eta hiesari lotutako estigmak eta diskriminazioak beren horretan diraute, eta haiekin amaitzeko oraindik asko gelditzen da eginkizun. Hogeita hamar urte pasatxoan batez ere tratamenduetan emandako aurrerapauso zientifikoek itxaropen handiak ematen dizkigute, eta horiek direla medio, GIBarekin bizi diren pertsonen, tratamendu horiek hartuz gero, orain gutxi arte pentsaezinak ziren bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena izan ditzakete.

Horregatik, beharrezkoa da aurrera segitzea genero-perspektibadun prebentzio-estrategia ahaltsuekin: sexu seguruagoa sustatzeko kanpaina espezifikoak, droga-kontsumoan kalteak murrizteko programak, GIBaren proba egin eta diagnostiko goiztiarra lortzearen aldeko sustapen-lana. Eta Sexu- eta Ugalketa-osasunari buruzko Foru Dekretuaren aplikazio orokortuari jarraipena ematea, enfasi berezia jarritz Skolae Programaren bidez GIBaren nahiz sexu-transmisiozko beste infekzio batzuen prebentzioa eta sexu-osasuna susta daitezela.

Gizarte osoak buru-belarri ekin behar dio ONUSIDaren helburuak erdiesteari: 0 transmisio eta 0 diskriminazio.

GIBik gabeko etorkizun baterantz aurrera egiteko, aldarrikatzen dugu gure erkidegoan adostasun politiko zabal bat susta dadila GIBari erantzuna emateko neurrien inguruan, horrekin guztiarekin eremu horretan esku hartzeko erreferentziako esparru egonkor eta ekitatiboa ezartzeko. Era berean, uste dugu beharrezkoa dela Nafarroatik estatu-itun bat bultzatzea, Espainiako Estatuan infekzioak duen egoeraren aurrean.

Akordio horretan beharrizan zehatz batzuk jaso behar dira; honako hauek, esate baterako:

- Aitortza, laguntza eta behar adinako zuzkidura ekonomikoa ematea esparru horretan lan egiten dugun Gobernu Kanpoko Erakundeoi.
- Giza baliabide eta baliabide materialen bitartezko zuzkidura ezartzea, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua modu orokortuan eta urgentziaz aplikatu.

dadin esparru sozio-sanitarioan eta, Skolae programaren bidez, hezkuntzaren esparruan; bai eta gizarte-ongizatearen beste arlo batzuetan ere.

- Hiesari buruzko prestakuntza berezia irakasleentzat eta esparru soziosanitarioko profesionalentzat; bereziki, Oinarrizko Osasun Laguntzakoentzat.
- GIBak "gaixotasun infekzioso-kutsakor" gisa duen katalogazioa erretiratzea.
- 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetzea. Pertsona guztientzako osasungintza-estaldura berrezartzea.
- GIB-HIESa kontrolatzeko programa berreskuratzea, erreferentea izan baita herritarrentzat, eta funtsezkoa manifestu honetako erreibindikazio guztiak taxutu, koordinatu, sustatu eta bultzatzeko.

Asko da orain arte lortu duguna, eta ildo horretan lan egiten jarraitu nahi eta behar dugu, hemen gauden guztiongatik eta, bereziki, GIBarekin bizi diren pertsonengatik eta haien familia eta adiskideengatik.

Gaur oso bereziki gogoan eduki nahi ditugu gurekin jada ez dauden aktibista horiek, zeinei zor baitiegu, gutxienez ere, gure lan, babes eta ahaleginarekin GIBaren kontrolean aurrera egiten jarraitzea.

Iruñean, 2018ko abenduaren 1ean



C/ Ciudad de Sueca 5, bajo  
31014 Pamplona · Navarra  
Tel.: 948 38 41 49  
sare@pangea.org  
C.I.F.: G-31471386

